

Tennecoko 4 lankide Aconcagua mendian

Gabonetako oporraldiak aitzakia hartuta, Artarra Mendi Taldeko kide eta Ermuko Monroe Tennecoko lankide diren Javier Alberdi, Ignacio Alberdi eta Luis Canales ermuarrak eta Josemi Da Silva zaldibartarra, Aconcagua mendian izan dira. Asiatik kanpo, munduan den mendirik gailurrenean (6.962 metro). Guztira 23 egun eta tartean mendiaren bi aldeak ezagutu dituzte, poza eta tristura.

- Nola animatu zineten halako zerbait egitera?

Lankide izateaz gain, Artarra Mendi taldetik ezagutzen genuen elkar. Mendizaleak gara eta kirola betidanik egin izan dugu. Aspalditik Pirinioetara, Alpeetara joan izan gara elkarrekin eta duela 2 urte inguru, MARCA egunkarian Juanito Oiarzabal eta Juan Vallejo goi-mendizaleek, jende ezaguna Aconcaguaren tontorrera eramateko proiektua agertu zen eta gure abentura hastea erabaki genuen.

- Laurok Tecnecon ari zarete lanean, noiz jaso zenuten lantegiaren baiezkooa?

2006an aurkeztu genion enpresari gure proiektua eta 2007ko abenduan eman ziguten baiezkooa. Gure bidaia ordaintzeko prest zeudela eta aurrera egiteko. Azken urte-

an burubelarri ibili gara hau guztia prestatzen. Bestalde, Artarra Mendi Taldeari, Indartu osasun zentroari, Oñatiko Osi kirol dendari, lagunei eta etxekoei gure eskerrik beroenak.

- Zer zioten zuen etxekoek?

Zoratuta zaudete! Horixe esaten ziguten baina batipat bizirik bueltatzeko.

- Aconcaguak 6.000 metro-tik gora ditu, ordura artekoak tontor txikiak ziren...

Mont Blanc ere egin genuen, baina egia da, 4.800 inguruan ibiltzetik ia 7.000 metroko gailur bat egitera alde dagoela. Taldean Luis zen 6.000 metrora iritsia zen bakarra.

- Traste guztiak hartu eta Argentinara joan zineten...

Janaria izan ezik, 30na kilo



inguru eraman genituen gutako bakoitzak. Hegaldia ere berezia izan zen, hegazkinean gindoazela, pilotuen kabinara gonbidatu gintuzten eta Aconcagua goitik ikusteko parada izan genuen. Izugarria izan zen.

- Lehen egun horietan zer moduz moldatu zineten?

Indartsu geunden, gogoz eta mentaki indartsu. Entrenamendu asko eginda joan ginen. Han uda zen eta egun pare bat egokitzen pasa genituen. Egun batzuetan Ignacio eta Josemik buruko mina ere sumatu zuten, baina halakoa ohikoak dira altuera handian.

- Gailurrera bidean zenbat kanpamendu jarri zenituzten?

Hasiera batean gure asmoa 2 kanpamendu jartzea zen baina bertan ziren beste mendizale batzuk 3 jartzea gomendatu ziguten. Bigarren kanpamendutik hirugarrenera material asko garraiatu behar izan genuen eta horrek lan eta energia asko ahitu zizkigun. 5.000 metrotik gora elurra zegoen eta 3. kanpamendua 6.000 metro inguruan kokatu genuen.

- Gailurrerako saiakera falta zen soilik...

Hirugarren kanpamenduan geundela, eguraldiak okerre- egin zuen eta erreskate- talde batekin egin genuen topo. Orduan jakin genuen Italiar mendizale batzuk eta gidari argentinarr bat gailurraren inguruan zeudela jaitsi

ezinda eta haiek erreskate- tzea zutela helburu. Ekaitz gogorra izan zen egun osoan, baina iluntzerako baretu zen. Hurrengo egunerako eguraldi ona iragarrita zegoenez, gailurrerantz abiatzea erabaki genuen.

- Zer moduz joan zen saiakera?

Goizeko 3etan esnatu eta 5etan abiatu ginen. Erreskate laneak bide batetik eta gu hirurok beste batetik Italiarrak gailurrera bidean aurkitzeko asmotan. Gailurrera bidean gindoazela, 2 talde osatu genituen. Ignacio eta Javi anaiak alde batetik, eta Luis eta Josemi bestetik. Egur- dian, eguraldia asko okertu zen. Elurra hasi zen eta nekea sumatzen hasi ginen. Eguraldia ikusita, Luisek eta Jose- mik iguera bertan behera uztea erabaki zuten arrisku handia zegoelako eta hirugarren kanpamendura itzuli ziren. Goraxeago Ignacio eta Javi zihoazen, baina Ignaciok des-

hidratazio arazo larriak izan zituen eta amore eman behar izan zuen. Javik bakarrik lortu zuen gailurra egitea.

- Nolakoa izan zen sentipena?

2 minutu eskas eman zituen bertan eta motxila bat besterik ez zuen aurkitu. Ez zuen halere ospatzeko gogo haundirik, Italiarrak ez zuen ikusi, lankideak atzean, elur eta ekaitzaren erdian, jaitsierari ekin zion. Ikusmena ere oso eskasa zen eta GPSaren laguntzaz ozta-ozta hirugarren kanpamenduraino hel- tzea lortu zuen. "Aupa Artarra!" horixe izan zen esan zuen lehen hitza.

- Handik gutxira jakin zenuten 5 italiarretatik 3 hilda aurkitu zituztela gidariarekin batera...

Hirugarren kanpamenduraino jaitsi ostean, salbamen- du taldeko kideak jeitsi ziren bizirik aurkitutako mendizaleekin. Beraiei lagundu ge- nien elurra urtzen, behar zi-

tuzten janak prestatzen... go- gorra izan zen bizitakoa. Be- sarkadarekin eskertu ziguten egindakoa. Ermuan ere kezka nagusitu zen, jendeak baze- kien gailur inguruan geundela eta istripua izan zela. Gaizki pasa zuten senideek ere.

- Oinarrizko kanpamendu- ra ondoren...

Han txanpana ere eskaini ziguten, baina pasatako guz- tiaren ondoren, ez zaizu os- patzeko gogorik gelditzen. Mendiak ahituta utzi gintuen bai fisikoki eta psikologikoki.

- Loian egin zizueten ongi etorria...

Ez genuen halakorik espe- ro. Aureskua ere dantzatu ziguten, hungigarria izan zen benetan.


- Aurrera begira asmorik?

Himalaya aldera joatea nahiko genuke. 7.000 edo 8.000 metroko gailurren bat egitea. Egia esan, Aconcagua uste baino mendi gogorragoa da batipat eguraldia hain al- dakorra denean. Saiatzen di-



ren 4tik batek soilik lortzen du gailurrera iristea eta hori gure kasuan ere bete da. As- ko ikasi dugu, esperientzia hartu dugu, beste une gogo- rretan aurrera egiteko eta erabakitzeko gaitasuna emango diguna.

Asier Ibaibarriaga




Mendi handiek noizbehin- ka mendizaleei bere beso- ak zabaltzen dizkiete, baina baita gogor estutu ere; poztasuna eta negar- malkoek, bizitza eta heriotzak, guztiek, bat egin dute oraingoan ere Akonkaguan.

Urteetako ilusioa bete dute eta bide batez, gure etxeetako berotasunetik bada ere, teknologia berriei esker, abentura honetaz gozatzeko aukera eskaini digute.

Epe motzean erronka berriak izango dira, (ez hain mardulak agian), 'mendi-mina' asetu ezine- ko mendizaleen gosea baita.

Javi, Ignacio, Josemi eta Luisen balentria izugarria gertutik jarraitu dugunak, harro gaude horrelako mendizale kementsuak Artarraiko kide eta gure lagunak direlako: ZORIO- NAK!

Koldo Aranberria



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak
- toldoak

Erakusketa berria: Karabixa, 1 943 17 98 60

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41




ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 • (943) 17 00 61 Faxe. 943 17 42 17

48260 ERMUA




ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGAÑA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua